

ETXARRIN IAZ BILDUTAKO JENDETZA GAINDITU NAHI DUTE ANTOLATZAILEEK AURTEN TAFALLAN

# lazkoa gainditzera

■ Gaur ospatuko dute milaka eta milaka euskaltzalek Nafarroa Oinez Tafallan. Lan ta Lan Auzolan lelopean 110.000 lagun biltzea espero dute aurtengo antolatzaileek, iaz Etxarrin bildu ziren euskaltzaleen kopurua gainditzeko.

Erredakzioa/Donostia

FESTA egun handia izan dadin, dena prest dute Tafallako Ikastolako antolatzaileek. Eragozpen handiena eguraldia izan daiteke, baina euria egingo balu ere, ibilbide alternatiboa prest dute, eta, beraz, ez da aitzakiarik izanen Tafallara ez hurbiltzeko gaur.

Tafallara joan nahi dutenei garraio publikoa erabil dezatela gomendatu diete antolatzaileek. Hala ere, autoz joaten direnek ere aparkatzeko leku ugari izanen dutela adierazi dute antolatzaileek, eta, gainera, Nafarroako foruzain ugari izanen dira laguntzeko.

Ibilbidea zazpi kilometro eta erdikoa izanen da, Tafallako ikastolatik hasita. Hirigunetik kanpo doa, garagar, gari eta mahats soroen artean. Ibilbidean zuhaitz gehiegi ez dagoela-eta, eguzkia egingo balu txanoren bat komenigarria izan litekeela adierazi dute antolatzaileek.

Ibilbidean sei gune zabal askoak daude, eta inori ez zaio lekurik faltako. Gune guztiei Tafallako toponimiari harturiko izenak jarri dizkiete. Horrela, lehen guneak Barrankiel du izena, bigarrenak Baldonaiz, hirugarrenak Plano Mendia, laugarrenak Zelada, bosgarrenak Oilarkanta eta seigarrenak FERIA TOKIA.

## Musika, jan-edana eta ikuskari ugari

■ Guneotan, materiala erosi ahal izanen da: jertseak, txanokak, galtzak, poltsak... Horrez gain, zer edan eta zer jan ez zaie faltako zirkuituan ibiliko diren milaka euskaltzaleei. Gune guztietan izanen diren ogitartekoez gain, euskaltzaleak herri bazkariaraz gozatu ahal izanen dira sagardotegietako menu tipikoarekin: bakailao tortilla, txuleta eta gazta intxaurrekin.

Ikuskizunak ere ugari izanen dira egun osoan. Txikientzako programa oparoa dago prest: pailazoak, entzierro txikia, Superbat, puzgarri parkeak, tailerrak, kart kotxeak, Euskaraokea... Laugarren gunea ardoarena izanen da, eta, bertaratzen direnek mahats prentsaketa nola egiten den ikusi ahal izanen dute.

Musika ere erruz entzun ahal izanen dute Nafarroa Oinez-era bildutakoek: gaiteroak, trikitilariak, fanfarreak eta bertsolariak ez dira faltako ibilbide osoan. Horrez gain, rock kontzertuak ere izanen dira. Oskorrik Kontzertu Demokratikoa izeneko emanaldia emanen du hirugarren gunean. 18:30etan Maixa eta Itziar taldea ariko da lehen gunean. Bosgarren gunean, aldiz, Pilt talde rockeroa ariko da

18:15etatik aurrera. Gainera, bosgarren gune horretan King Mafrundi Baionako taldearen erritmoak ere entzun ahal izanen dira, programan aldaketa bat izan baita eta aurreikusita zegoen Skalariak taldearen ordez joko baitute. X



## EGITARAUA

### 1 BARRANKIEL

10:30 Muthiko Alaiak fanfarrea.  
11:00 Muthiko Alaiak dantza taldea.  
11:45 San Fermín zanpantzarra.  
12:00 Tafallako Musika Eskolako akordeoiak.  
12:30 Tafallako Jota Eskola.  
13:00 A. Musikal Barasoain.  
13:30 M. Bedagaxar eta Mila Jaurrieta.  
15:30 "Los Dinosaurios"  
16:30 Balerdi Balerdi.  
17:45 Larrain dantza (Tolosako gaiteroak).  
18:30 Maixa eta Itziar (azken jaia) Nafarroa Oinez-eko abestia.

### 2 BALDONAIZ

10:30 Faltses-eko Gaiteroak.  
11:00 Takolo, Pirritx eta Porrotx.  
12:00 Iturengo zanpantzarra.  
12:15 Erri-Berriko ihauteriak.  
13:00 Los Incansables.  
14:00 Sakanako trikitilariak.  
15:30 Tubabu (Afrikako musika).  
16:30 Habana Esemble (kubako musika).  
17:30 Alaitz eta Maider.

### 3 PLANO MENDIA

10:30 Burlatako txistulariak.  
11:00 Tuterako zanpantzarra.  
11:15 Ortzadar taldea.  
12:15 Laia erakustaldia.  
12:30 Amaiur Dantza taldea.  
13:00 Martikorena.  
13:45 Bertsolariak: E. Arozena, X. Terreros, X. Sibeira eta X. Legarreta.  
14:15 Mundiñano Anaia.  
15:30 Otsondo 602.  
16:30 Trabuko.  
17:30 Oskorri.

### 4 ZELADA

10:30 Haizaldi gaiteroak.  
11:00 Lera Txakur Lasterketa.  
12:15 Itsasondoko Trikitilariak.  
13:00 Herri Kirolak.  
M. Saralegi; Mingegia, Larretxea, Narzabal eta Senostain.  
- Zaldi probak.  
- Lasto jasotzea.  
16:00 Galtzagorri Txaranga  
17:00 Iñaki Perurena.

### 5 OILAR KANTA

10:30 Laguntza txistulari taldea.  
11:00 Malatxa txaranga.  
11:30 Azkoien dantza taldea.  
12:15 Lodosako Dantza taldea.  
13:00 Orbela Otxotea.  
13:30 Haizaldi gaiteroak.  
14:00 Bertsolariak: I. Lazkano, I. Murua, M. Lujanbio, M. Telleria eta S. Lizaso.  
15:30 Skalariak  
16:30 Deabruak Teilatuetan.  
17:30 Jarauta 69  
18:15 Pi It (azken jaia).

### 6 FERIA TOKIA

10:30 Tafallako Musika Eskolako Banda.  
11:00 Tafallako dantzariak.  
11:30 Euskaraokea.  
13:00 Tutik Ere pailazoak.  
13:30 Laia lasterketa.  
14:15 Entzierroa.  
16:00 Tutik Ere pailazoak.  
16:30 Euskaraokea.  
17:30 Entzierroa.

F. AIZPURUA

## Haize indartsuak argindarrrik gabe utzi zuen Gasteiz hainbat orduz

■ 90 kilometroko abiadura hartu zuen hego haizeak

Vasco Press/Gasteiz

ATZO Euskal Herri osoan izan zen hego haize zakarrak arazo bat baino gehiago sortu zuen han eta hemen. Gasteizko Arana auzoan, haizeak arbola bat bota zuen, eta linea elektrikoko dorre baten gainean erori zen. Ondorioz, argindarrrik gabe geratu ziren Gasteizko auzo gehienak eguerdian.

Horrek arazo ugari sortu zituen, eta suhiltzaileek lan franko egin behar izan zuten hiri osoan. Besteak beste, babes zerbitzuek dei ugari jaso zituzten igogailuetan itxita geratu zen jendea ateratzeko. Hego haizeak arazo ugari sortu zion Iberdrolari elektrizitate hornikuntza behar bezala egiteko, baina enpresak berak onartu zuzenez, arratsaldearen hasieran egoera normaltzen hasi zen.

Elektrizitate hornikuntzan gertatu ziren arazo horiez gain, suhiltzaileek beste hainbat egoera konpontzeko ere esku hartu behar izan zuten: kristalen hausturak, arbolen erortzeak, teiltage-lan hondatzeak. Udaleko suhiltzaileek 20 aldiz atera behar izan zuten arazoren bat konpontzera. Egun normal batean hiru aldiz ateratzen direla azaldu zuten udal zerbitzu horretako iturriek.


Bestalde, Sondikako aireportuan hegazkinak normaltasunez egin zituzten itereak eta sarrerak, hego haizea indartsua izan arren. Aireportuko aurreikuspen meteorologikoen arabera, haizea orduko 90 kilometroko abiaduran ibili zen tarteka. X

JAGOBA MANTEROLA



## UZEIren sortzaileei omenaldia

Jendéz mukuru bete zen Miramar jauregiko ekitaldi aretoa herenegun, UZEIren 20. urteurrena ospatzeko egin zen ekitaldian. Ekitaldia 19:30etan hasi zen, Javier Saizar lehendakariak egin zuen hitzaldiarekin. Bukatutakoan, omen egin zieten elkarteak sortu zuten 19 fundatzaileei, eta Antton Mendizabalen eskultura jaso zuten. Joseba Intsausti UZEIko lehen zuzendariak bidean geratu diren elkartearen fundatzaileak gogoratu zituen. Ondoren, bildutakoek elkartearen historia biltzen duen diaporama ikusi ahal izan zuten.

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak diruz  
lagundutako egunkaria